

**HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA**  
**Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua**  
Ikasturtea: 2018-2019

**PILOTA ESERIA JOKOAREN BEHAKETA ETA ESKU-HARTZEA**  
**GENEROAREN IKUSPEGITIK:**  
**PARTE-HARTZE PAREKIDEAREN BILA.**

**EGILEA:** Izar Agirretxe Iradi

**ZUZENDARIA:** Joseba Etxebeste Otegi

Data, 2019ko maiatzaren 23a

# Aurkibidea

SARRERA.....	3
MARKO TEORIKOA:.....	3
• Gaur egungo gizartea:.....	3
○ Sistema kapitalista:.....	4
○ Sistema hetero-patriarkala:.....	5
• Egungo hezkuntza sistema:.....	6
○ Hezkuntza formala:.....	8
○ Hezkuntza ez-formala:.....	9
○ Hezkuntza informala:.....	9
• Gaur egungo heziketa fisikoa:.....	9
○ Kirol hegemonikoak:.....	11
○ Joko-jolasak:.....	12
• Gaur egungo heziketa fisikoa eta praxiologia motorra:.....	13
○ Barne logika:.....	14
○ Kanpo logika:.....	16
• Gorputz hezkuntza zein aisialdi hezkidetzalearen bila:.....	20
HELBURUAK:.....	22
HIPOTESIAK:.....	23
METODOLOGIA:.....	23
• Parte hartzaileak:.....	23
• Tresnak eta prozedura:.....	24
○ Pilota eseriaren jokoak:.....	25
• Ikertzailearen rola:.....	28
• Eskuhartzea:.....	29
○ Lehenengo jokaldia:.....	29
○ Bigarren jokaldia:.....	32
ONDORIOAK:.....	36
BIBLIOGRAFIA:.....	39

## SARRERA

Beste ezerekin hasi aurretik, esku hartze hau egiteko ideia nondik datorkidan azaldu nahiko nuke, nire bizipenei jarraiki sorturiko proposamena baita ondorengoa. Esan beharra daukat hainbat urtetan aisialdiko hezitzaile izanik ere, barne logikan aurkaritza duten jarduera fisikoetan, hasiera batean estrukturari dagokionez neutroak badira ere, normalean ez dudala partaideen arteko generoari dagokion parekidetasuna bermatzea lortu. Eta egoera honen jakitun izanik, garrantzizkoa deritzot hezkuntza esparruan emakumezkoen ahalduntzea lantzea neska-mutilen parte hartze parekide bat lortze bidean.

Horretarako baina, hezitzaileak zein estrategia erabili litezkeen pentsatzen jarrita, tresna efektiboetako bat hitzarena izan daitekeelakoan nago. Eta hortaz, honakoa da lan honen bitartez jarraian plazaratuko dudana, hain zuzen: pilota eseria joko-jolasean hezitzaileak eginiko feedback bidezko esku hartzeak zein eragin duen neska mutilen parte hartze parekide bat lortze bidean.

## MARKO TEORIKOA:

### Gaur egungo gizartea:

Jakin badakigu, azken aldi honetan azkartasun handiko aldaketa nabariak gertatzen ari direla Euskal Herrian, eta baita, munduko gainontzeko herrialdeetan ere. Gaur gaurkoz, aldaketa sozial baten atarian kokatzen gara, geure gizarteak zuzeneko eragina jasaten duelarik barne egitura zein ezaugarrietan. Aipaturiko aldaketak pertsonon harremanetan eragin zuzena dute, eta baita giza sistemetan ere. Eta ondorioz, desberdintasun sozialaren handiagotze bat ikus dezakegu, zeinetan eskusioari bide ematen zaion.

Orain arte errekurtsio naturalak baziren botere iturri, egun, informazioa zein ezagutza dira nabarmentzen ari direnak, aurrerapen teknologikoekin batera. Komunikazio bideak masa kontrolatzeko modu erabilgarri eta egokiak dira, jendarteari informazioa helarazteko erraztasuna dela medio. Hala ere, kontuan izan behar dugu jasotzen dugun informazioa beti modu subjektiboan transmititua izango dela, igorlearen interesetara edo ikuspegira moldatua egongo delarik. Hortaz, ezinbestekoa zaigu berau interpretatzen jakin eta

kritikoak izatea, besteenganako menpekotasuna murrizte bidean (Apecechea, 2013).

Eskubideei dagokienez, globalizazio neoliberalaren politikek eta praktikek merkatuaren interesak hobesten dituzte herri eta pertsonen eskubideen aurretik. Eta jokabide horrek, honako ondorio hauek ekarri ditu: pobrezia larriagotzea, gizarte desberdintasunak handitzea, pertsona gehienek bizi baldintza duinak ez izatea eta giza eskubideak sistematikoki urratzea.

Giza eskubideak babestea eta sustatzea, beraz, ikuspegi pedagogikoaren zeharkako ardatz bilakatzen da. Izan ere, honako helburuak landu beharko genituzke: bidegabekeriak salatzen ikastea eta gizarte mobilizazioan parte hartze aktiboa sustatzea. Horien bitartez, indarkeriarik gabeko mundu bat eraikitzeko konpromisoa hartuz (Díaz, 2018).

### Sistema kapitalista:

Egun bizi garen gizartea interpretatzerako orduan, ezinbestekoa dugu garai neoliberal batean kokatzen garela ulertu eta sistema kapitalistaren bilakaera zein ezaugarriak kontuan izatea. Jakin badakigu, egungo sistema kapitalista ezartzeko ideologia eta praktika patriarkala beharrezko sostenguak izan direla, honakoa gizonen eta emakumeen arteko mendekotasun harreman hierarkizatu baten gainean eraiki denez gero. Eta ezin ahantzenez, bortizkeria kapitalismoaren oinarrizko aldagaia izan dela hasieratik, arrazakeria eta xenofobiaren bidez, esaterako, hegemonikoak ez diren komunitateak menperatuak izan direlarik (Ruiz, 2015).

Kapitalismoa hortaz, diru eta ondasunen metaketan oinarritzen den sistema ekonomikoa dela esan dezakegu, globalizazioaren bidez mundu-mailako akumulazio eta hedapen gaitasuna izan duena. Lurralde industrializatuenetan kokatzen da eta prozesu integratzaile orekatu bat bideratzen ez badu ere, bertako lurralde eta jarduera guztiak baldintzatzen ditu.

Globalizazioarekin batera, produkzioko sistema berriek, komunikabideek zein Internetek, eredu neoliberalaren inposizioak eta

kapital ukiezinaren aldeko diskurtsoak besteen artean, geure bizitza interpretatzeko begirada eraldatu digute. Ondorioz, mundu-mailako homogeneizazio eta inperialismo kulturalak bestelako kultura eta herri txikiak zapaltzen dituelarik. Eta hori gutxi ez balitz, neoliberalismoaren eskutik lehiakortasunaren logika eskusiboa txertatu da, errentagarria ez den zerbitzu oro deuseztatzearekin batera eredu kultural indibidualista areagotu, ezegonkortasun sozio-laborala orokortu eta korporatibismoa ohiko kultura bihurtuz. Bestalde, emakumearen diskriminazioa eta behin-behineko lan kaskarrak areagotu dira.

Amaitzeko esan, gastu publikoa murriztu edota doikuntzarako plangintzak aplikatzean emakumezkoa dela ezkutaturiko lana burutu behar izaten duena, sozialki baloratu gabeko funtzioak betetzen dituelarik murgildutako ekonomiaren baitan. Eta biziraupen-mekanismo nagusia familia izanik, emakumearen emantzipazio-prozesua atzeratu egiten da baldin eta etxeko lanak betetzeko ardura bere gain hartzera behartuta ikusten bada (Mendizabal, 2000).

### Sistema hetero-patriarkala:

Egun, gizonezkoak eta heterosexualitatea gailentzen diren estatu egitura baten aurrean kokatzen gara, zeinetan emakumezkoek eta LGBTI pertsonak matxismoaren bidez estrukturala den diskriminazioa jasaten duten.

Beraz, ezagutzen dugun genero kontzeptua binarismo eta dikotomia oinarri izanik sortzen den pentsatzeko eskema bezala deskriba dezakegu, ulerkera hau gizarteak bere egin duelarik. Bertan, maskulino eta femenino terminoen harreman ez parekidean antolatzen dugu geure normaltasuna. Baina, historikoki eraikia izan den eskema hau ez da hitzen erabilera soilera mugatzen, geure eguneroko praktiketara egiten baitu salto sozializazioaren bidez. Eta behin gure bizi ulerkeran txertatuta, aipaturiko dominazio forma hau ikusezin bilakatzen zaigu, uneoro erreproduzitzen dugularik modu naturalizatu batean (Paris, 2015).

Hala ere, kontuan izan behar dugu oso zaila dela maskulinoa eta femeninoa zein homosexualitatea eta heterosexualitatea bezalako

kontzeptuetan hauen arteko muga non dagoen kokatzea; eta ezin ahantz genezakeela, termino hauetatik kanpo geratzen diren eta behar bezalako ikusgarritasuna ematen ez zaien errealitate anitzak eta askotarikoak existitzen direla. Izan ere, feminitateak eta maskulinitateak eraikitzerako garaian, etengabe eraldatzen eta elkarrekintzan ari diren prozesu gisa ulertu beharko genituzke. Gauzak horrela, egun bizi dugun errealitatea modu ezberdinetan ikus daiteke, izan banakakora mugatua, era sozialean ulertua edota modu politikoan interpretatuz.

Horrez gain, modu zehatzean eraikitzen den gizarte sistemaren baitan hiru azpi-sistema bereiz daitezke: botere harremanak; lanaren sexuen araberako banaketa eta ekoizpen harremanak; eta sexualitatearen eta emozioen antolaketa. Hala ere, boterea modu zabal batean aztertu beharko genuke, zeina pertsona eta taldeen artean higituz administratzen den, hein batean, harreman bezala ulertuta. Analisi honek, errealitatea gizonezkoak gaizto eta emakumezkoak on bezalako ikustera sinple batetik haratago ikustera behartzen gaitu, modu konplexuago batean ulertuz, hain zuzen.

Genero kontzeptuak orduan, garenari beharrean egiten dugunari eta egoteko dugun moduari egiten dio erreferentzia, eta genero identitate zein orientazio sexuala bezalako kontzeptuak, aurrez aipatu bezala, ekintza ezberdinen arteko elkarrekintzan gauzatzen dira, denbora eta espazioan aldatzen joanez. Eta ez dira, hortaz, kulturen finkatutako eta estereotipatutako nortasunetara mugatzen (Estepan, 2009).

### Egungo hezkuntza sistema:

Gizarteak hortaz, eragin zuzena du hezkuntza sisteman. Eta, nahiz eta, sistema hetero-patriarkalaren zein kapitalistaren ideia batzuk bertan txertatzen diren, urteak aurrera joan ahala aurrerapen eta berrikuntza ugari ematen ari dira hezkuntza esparruan. Gaur egungo hezkuntza proposamenean hortaz, bi kontzeptu berri txerta genitzake: hezkuntza komunitatea eta teknologia berriak.

Lehenengoari dagokionez, garai batean hezkuntzako eskuhartzea eskola esparrura mugatzen bazen ere, egun, inguruko eragile ezberdinek ere hartzen dute parte bertan; hala nola, udaletxeak, familiak, herriko elkarteak... azken batean, hezkuntzan eragina duten sektore ezberdinen arteko elkarlana sustatzea litzateke gakoa, iritziak trukatu zein errespetatuz.

Bigarrenari dagokionez, jakin badakigu egunerokotasunean teknologia berriek duten presentziak zein dimentsio hartzen duen; eta gauzak horrela, beharrezkotzat jotzen da haurrek tresna hauekiko ezagutza zein kritikotasuna garatzea; aurrez esan bezala, manipulaziorako bide izan baitaitezke, eta haurrak, tresna hauen erabileran mugak jartzeko gaitasuna eskuratzea ezinbestekoa da (Apecechea, 2013).

Aipaturiko bi berrikuntzez gain, ezin ahaztu genezake ikuspegi feminista gizaratean pixkanaka errotzen ari den honetan, hezkuntza-sistema ere ildo honen hainbat kontzeptu barneratzen ari dela pixkanaka.

Jakin badakigu geure iragan edo herentzia kulturalak eragin zuzena duela orainean. Urte luzeetan zehar sexuaren marka biologikoak pertsonoi jarduera, funtzio, harreman eta botereak esleitzeko funtzioa bete du; eta banaketa horren baitan, emakumezkoak bizitza pribatura mugatuak izan dira, gizonezkoak esparru publikorako aproposagotzat jo direlarik. Gauzak horrela, ezberdintasun sozial honek bien arteko ezberdintasuna errotu eta naturalizatu du; eta egun, uste eta sinesmen hauek aldatzeko lan handia dugu egiteko, hezkuntza-sistemarentzat erronka garrantzitsua izanik.

Ildo honetan, generoaren inguruko ikerketek eskola kurrikulumean aldaketak egitea ahalbidetu dute, aurrez diskriminatzaileak izan diren jarrerak irauli eta parekidetasunaren bidean lan egiteko, betiere, pertsonen arteko ezberdintasuna errespetatuz. Horretarako, edukiak, esparruak, estrategiak eta akziorako formak diseinatu dira; eta behin hauek martxan jarrita, ezberdintasunak detektatu, sistemaren bidez barneratutako baloreak deskonstruizi eta inkontzienteki erreproduzitzen genituen jarrerak iraultzeari ekin zaio, hauen ordeztu praktika hezkidetzaileak sustatuz (Rebollo, 2013).

Esan dugun bezala, urteak aurrera joan ahala generazio berrien etorrerarekin, ondorengo sozializazio era eta honen bitartez transmititutako baloreak aldatzen ari dira. Alabaina, pedagogia kritikoaren bitartez androzentrikoak eta eurozentrikoak ez diren ikuspegiak berreskuratu beharko

lirateke. Horretarako ordea, hezkuntza proposamenak menperatze sistema zalantzan jarri beharko luke, berdintasunezko harremanak sustatuz, pertsonen eskubide berdintasunari eta aniztasuna balioesteari garrantzia emanez.

Ikuspegi horretan oinarrituta, beraz, egoera ahulenean dauden kolektiboetako kideen autonomia sendotze bidean beharrezkoa da hezkuntzak ahalduentzeko estrategiak eskaintzea; elkarrizketaren bitartez eta kultura, genero, etnia eta maila aniztasuna kontuan hartuz (Díaz, 2018).

Eskolan ematen diren harremanei dagokienez, hezkuntza-sistema honetan irakasleak jakintza beregain duenez, ikaslearekiko hierarkia harreman bat gauzatzen du. Eta egoera honen aurrean, egokiagoa litzateke irakasle eta ikasleen arteko harremana horizontaltasunean oinarrituko balitz, alde biko ikasketa bultzatuz, elkar errespetatu eta bestearen iritzia aintzat hartzearen bidez.

Beste alde batetik, eskola beraren papera ere azken urte hauetan aldatzen doan aspektu bat da. Irakasteko forma tradizionalak zabaltzen ari dira, alternatiba berriak sortzen doazen heinean. Aldaketa honen bidez, testuinguru anitzak eta askotariko egoerak erabil daitezke pertsonen ikaskuntza ahalbidetzeko. Modu honetan, ikasteko garaian honako testuinguruak bereizten direlarik: formala, ez-formala eta informala, jarraian modu oso sinple batean azalduko den bezala (Martín, 2013):

### Hezkuntza formala:

Arauturiko hezkuntza-sistemaren barruan kokatzen da eta hezkuntzako lehen urteetatik unibertsitatera bitarte luzatuko litzake. Irizpide metodologikotik begiraturik eskolari dagokiona izango litzateke, honako ezaugarriak barne-bilduz: irakaskuntzaren forma aurrez aurrekoa da, instituzionalizatuta dago, espazio propioa du, kronologikoki graduaturik dago, jakintza irizpide moduan hartzen den rolen banaketa asimetrikoa da, jakintzaren antolaketa irakaskuntza helburuetara bideratuta dago eta arau estableak jarraitzen dituzten praktikak erabiltzen dira.



### Hezkuntza ez-formala:

Eskolaz kanpoko hezkuntzaren baitan antolaturiko proposamenak gauzatzen dira bertan eta, modu batean edo bestean, eskolaren forma konbentzionaletik aldentzen diren prozedura zein eskuhartzeen bidez garatzen dira. Horrez gain, sistema ofizialetik kanpo garatutako hezkuntza jarduera antolatu eta sistematiko moduan ulertzen da. Sistema formalek ez bezala, ez dute hezkuntza gradu edo mailetara irteerarik eskaintzen; aldiz, inguru sozial eta produktiboa dute helburu moduan, erabiliriko programa eta metodoak malguak eta funtzionalak izanez.

### Hezkuntza informala:

Bukatzeko hezkuntza informala dugu, zeina bestelako prozesu sozialetara bideraturik dagoen, errealitate kulturelei erreferentzia eginez. Bizi osoko iraupena du eta pertsonak ezagutzak, gaitasunak, egunerokotasuneko bizipenen bidezko jarrerak eta naturarekiko harremana bezalako kontzeptuak barneratzeko espazioak dira. Hortaz, eguneroko bizitzako jarrerak lekua duten testuinguru bat da, lana, familia eta aisialdiarekin lotura zuzena duena; beraz, izaera unibertsala gailentzen da bertan.

### Gaur egungo heziketa fisikoa:

Antzinatek, hezkuntzaren alor guztiek, izan formala, ez-formala edota informala, gorputza jakinduria iturri bezala ulertu izan dute, betiere gaitasun pertsonaletatik abiatuz garapen sozialera bideraturik. Eta gaur egun ere, ulerkera berbera ematen zaio, orainaldian garrantzia duen balore gisa. Hala ere, gorputza eta motrizitatea ulertzeko orduan sortzen den anbigutasunak zailtasunak dakartza heziketara bideraturiko praktketan, ezinezkoa baita helburu zehatz eta argirik izan gabe heztea; eta ondorioz, arlo honi hezkuntza kurrikulumean zein gizarte ikuskeran ematen zaion garrantzia kasu batzuetan behar baino txikiagoa da, artea eta musikaren kasuan bezala, gainontzeko irakasgaiak gain-jartzen zaizkielarik (Gervilla, 2000).

Gainera, gorputz heziketaren trataera historian zehar gorputzaren kontzeptuarekin baldintzatua egon da, aldaketa sozialen eta kulturaren menpe; eta gorputzaren inguruko ideologiaren arabera ere, gorputz hezkuntzako trataera ezberdina izan da. Kirolak eta jolasak, sozializatzeko balio batzuk bultzatzen dituzte, eta baita, lan egiteko ohitura batzuk ere; gorputz adierazpenak berriz, komunikazioa eta ideien nahiz sentimenduen adierazpena bultzatzen du. Egungo gorputz hezkuntzak hortaz, ikuspegi guztiak onartu beharko lituzke, mugimenduaren ikuspegira murriztu gabe.

Jakin badakigu, gorputz heziketan landuriko gorputz-teknikak haurra giza elkartean gizarteratzeko elementuak direla. Modu horretan, euskal gizartearentzat beharrezkoak izango diren kontzeptu, prozedura eta jarrerak bereganatuko ditu ikasleak, beharrezkoak izango zaizkion garapen anatomikoa, fisiologikoa eta psikologikoa bideratuko dituelako sozializazio egokia lortzeko. Hala ere, Euskal Herritik kanpoko ereduak hartu izan ditugu maiz, bertako errealitatera modu aiposean egokitzen jakin gabe; eta honen aurrean, ezinbestean geure errealitate zein testuingurua kontuan hartuko duen eta bertan eragin nahiko duen gorputz heziketa bat sortzera bidean egin beharko genuke lan (Etxebeste, 2004).

Bestalde, gaur egungo gorputz heziketak emakumeen baloreak aintzat hartzea ezinbestekoa da, betiere norantza positiboa bermatuz, berau baloratu eta onartuz, pertsonaren osotasuna, osasuna eta aisialdirako beharra kontuan hartuta (Morales, 2007).

Egungo edukiek, zeinak haurraren heziketa integrala eta pertsonalitatearen garapen armonikora bideratuak dauden, betiere, jarduera anitzen praktika bultzatuz, gaitasun fisikoak lantzeaz gain, adinean aurrera joan ahala jarduera fisikoaren praktika jarraitua bermatzeko asmoa dute eta lehiakortasunera soilik bideraturik ez dagoen ikuspegi bat txertatuko dute.

Amaitzeko esan, eskolaren esparrutik haratago, Oinarrizko Hezkuntza Orokorrean irakasleria espezializatua txertatzeko eginiko ahalegina ere ez dela txikia izan; ondorioz, irakasleria zein metodoen espezializazio progresiboak Gorputz Heziketa lehen plano kultural eta hezigarrian kokatu duelarik Euskal Herri mailan; nahiz eta, pairatzen ari den goraldia ez den bitxia lanaren liberazioa eta denbora librearen erabilgarritasunaren bidez gorputzaren

zaintzaren gorakada bat ematen ari den gizarte honetan (Pascual eta Varona, 1992).

Beraz, gaur egungo heziketa fisikoan lantzen diren jardueren artean bi praktika gailentzen dira: alde batetik kirol hegemonikoak, eta bestetik, jokojolasak.

### Kirol hegemonikoak:

Arestian aipatu bezala, gizarte lehiakor eta indibidualista batean bizi gara, errentagarritasuna eta eraginkortasuna bilatzen ditugularik beste ezeren gainera. Eta hori gutxi ez balitz, gizarteak taldeak zein banakakoak baztertzeko erabiltzen dituen arrazoi eta formek erakusten dute zer nolako mailakatzeak gertatu diren, eta banakoen zein alderdi goraiatzeko diren eta zein ezaugarri irizten zaien onartezin (Fuente eta Jáuregui, 2003).

Ikusita kirola estatuak kontrol sozialerako tresnatzat erabiltzen duela eta sistema kapitalista zein patriarkalaren baloreak erreproduzitzen dituela, ondoriozta dezakegu emakumeon gorputza eta jokabideak ere hein batean eraiki eta zapaltzen dituela. Eta horrez gain, kirol hegemoniko hauei ezartzen zaizkien ezaugarriek ere, genero maskulinoari egozten zaizkion baloreekin egiten dute bat (Boyezuk, 2015).

Horrekin batera, kirolaren esparruak, emakumezkoekiko gizonezkoen gailentze fisikoa legitimatu eta mantentzen du, ikuspegi biologiko batetik. Baina kontuan izan behar dugu diskurtso hegemoniko baten aurrean gaudela, esaterako komunikabideek emakume kirolariei behar bezalako aintzatespena ez emateak ez baitu zerikusirik hauek dituzten gaitasun eta abileziekin, sistema kapitalistak emakumeak ikusezin bilakatzearekin baizik (Pagés, 2007).

Ondorioz, kirola ezin ikusenezake jarduera neutro bat balitz bezala. Aitzitik, interpretazio honen aurrean dominanteak diren balioen erreprodukzioa, erabiltzen den hiztegia, kategorizazioak eta

komunikabideek eraikiriko kirolaren irudia ere dudan jarri beharko genituzke (Boyezuk, 2015).

Izan ere, izan gorputz heziketako irakasle edo aisialdiko hezitzaile, kirol hegemonikoek bere baitan dakarkiten maskulinitate hetero-zentratuak eta gorputza errendimendurako makina gisan ikusteak zailtasunak ezartzen dizkigu geure laneko praktikan erresistentzia, indarra, abiadura, flexibilitatea... bezalako kontzeptuak helburu gisa jarri beharrean, bere baitan izan ditzakeen alderdi positiboak lehen planoan jartzeko; esaterako, sozializazio positiboa, autoestimua, elkartasuna... bezalakoak (Pagés, 2007).

### Joko-jolasak:

Komenigarria da haur zein gazteek jolastea; izan ere, tresna honek irakasleari haurrak gertutik ezagutzea bermatzen dio, haien gaitasun, gabezia eta jarrerak obserbatzearen bidez, ondoren haiengan eragiteko pausua emanaz. Horrez gain, sentipen negatiboak deuseztatzeko gaitasuna dute joko-jolasek, ohitura transmititzeko eta humore onez aritzeko tarte eskainiz. Haurraren nortasuna eraikitzerako garaian jolasek duten eragina ere erabakigarria da: ausardia eta pazientzia garatu behar diren egoerak sortzen baitituzte. Aipaturiko gaitasunak ez ezik, zintzotasuna, borondatea, diziplina, errespetua eta solidaritate kontzeptuak ere barneratzen dira. Eta bukatzeko, irabaztea zein galtzea modu natural zein osasuntsuan bizitzea dakarte, kiroltasunaren balorea barneratuz (Pascual eta Varona, 1992).

Bestalde, kirol joko eta jolasak gizartearen isla dira eta honen baloreetan murgildurik daude; baina aldi berean, joko-jolasek eraikiko duten kultura etorkizunean gizartearen jokamolde bihurtu liteke. Hortaz, joko-jolasak gizartearen ispilu dira, eta baita, gizarte eraikilea ere (Etxebeste, 2006).

Gauzak horrela, joko-jolasen bidez elkarren artean kooperatuz, haurren garapen integrala lantzea lortuko dugu, horrekin batera, errendimendu akademikoa, autoestimua, ikasketa aktiboa, ardura

indibiduala, interdependentzia positiboa eta ikasleen arteko berdintasunezko harremanak ere jorratuz.

Gainera, ikerketa ezberdinen arabera, esperientziaren balorazio positiboa joko-jolas kooperatiboek sorturiko emozio positiboekin loturik dago; izan ere, lehiakortasun ezak partaide guztien irabazle sentimendua ahalbidetzen du, elkarren arteko kooperaziozko harremana positibotzat ikusiz eta konpetentzia sozialak barneratuz.

Amaitzeko esan, ikaslea erdigunean jarriko duen gorputz heziketa bat sustatzen badugu jokabide motorren pedagogia erabiliz, pertsonaren garapena ahalbidetuko dugula, betiere, gidari papera betez, bera izango baita ikuskera kritiko baten baitan erabakiak hartu beharko dituen, norbere ezaugarriak errespetatu eta aniztasuna aberastasun gisa ulertuz (Lagardera eta Lavega, 2011).

Eta gorputz heziketan lantzen diren jarduerak aztertzearekin batera, ikastetxeetako jolastokiei erreparatzea ere komenigarria litzateke; jakin baitakigu, espazioaren antolaketak erabilera, jarrera eta harreman zehatz batzuk bideratzen dituela, jarduerak orokorrean segregatuak izanik. Horrek aditzera ematen digunez, genero bakoitzari joko edo kirol ezberdin bat esleitzen zaio, normalean, mutilek espazioa gehiago erabiltzen dutelarik. Eta ondorioz, ezinbestekoa da hezkuntza komunitatearen inplikazioarekin espazioaren androzentrismoan ere moldaketak egitea, jolastokian hezkidetzak bermatze bidean (Arin, 2019).

### Gaur egungo heziketa fisikoa eta praxiologia motorra:

Pierre Parlebasen ikuspuntua jarraitzen badugu, Heziketa Fisikoa modu ez-tradizional batean ikusi beharko genuke; izan ere, bere aburuz gimnasia eta atletismoa bezalako taldeko kirolei garrantzia ematetik haratago, joko-jolasak eta naturarekin harremana duen esperientziari eman beharko genioke garrantzia, zeinak kasu askotan gutxietsi eta minorizatutako edukiak izan diren. Hortaz, haurra hezkuntzaren erdigunean jarri beharra dago, horretarako, kirol hegemonikoa eta gorputz praktika globalizatu eta globalizatzaileak dudan jarriz. Izan ere, kirola joko natural, unibertsal eta

nagusitzat hartu izan da egundaino, ulerkera horrek kirolera egokituriko gorputz hezkuntza bat ekarri duelarik.

Gauzak horrela, merkatuak inposaturiko estandar eta parametroen arabeko gorputz ereduen kontsumitzaile soil izatera mugatu behar garela dirudi, herritar kritikoak sortze bidean geure kultura transmitituko duten joko-jolas tradizional eta lokalak erabili beharrean. Eta testuinguru honen baitan, egoera psikomotor zein soziomotorrak erabiltzearen aldeko agertzen da, bigarren honen barruan ikasleei komunikatzeko modu ezberdinak eskainiz; hala nola, kooperazioa, oposizioa eta kooperazio-oposizioa. Modu honetan, jasotako informazioaren pertzepzioa eta konfrontazioaren bidez erabaki hartze anitzak gauzatzeko aukera eskainiz (Parlebas, 2008).

Hala ere, kooperazio motorrak transmititzen dituen baloreak izango litzateke gehien landu beharrekoak, kontuan izanik, lehiakortasuna eta irabazteko nahia gailentzen diren gizarte geroz eta indibidualistago batean bizi garela, zeinak konparaketaren bidez ahulenak eskusioa jasaten duten. Ondorioz, motrizitatearen balore soziala aldarrikatu beharrean aurkitzen gara, komunikazioa jarriz analisiaren erdigunean, neutroa ez den kooperazio motorraren bidez (Saraví, 2007).

Bestalde, dimentsio kognitiboa, soziala eta adierazpenari dagokionarekin batera, emozioen alderdia ere kontuan hartu beharrekoa da. Hortaz, heziketa emozionala, identitate motorra eta baloreetan oinarrituriko heziketa oinarrizko zutabeak dira pedagogia aktiborako, pertsona baten identitatea garatze bidean (Lagardera eta Lavega, 2011).

Ondorioz, eta praxiologia motorraren arabera, heziketa fisikoaren baitan proposatzen dugun jarduera dena delakoa izanda ere, bi aspektuz baldintzatuta egongo da; hala nola, barne logika eta kanpo logika.

### Barne logika:

Akzio motorra gauzatzeko beharrezkoa den egoera motor baten ezaugarri bereizgarrien sistemari deritzo barne logika, zeinak ondorio batzuk sortuko dituen akzioa bera gauzatu ahal izateko. Horrez gain,

barne logikaren ezaugarriak akzio motorraren definiziotik datoz, lotura zuzena izanik jarduerak duen arau sistemarekin.

Hortaz, barne logika praktikaren kodearen bidez zehaztuko da, gorputz jarrera zehatzak eragingo dituelarik. Arauen kasuan ordea, espazioa, partaideak eta elkarrekiko harremana, objektuak, denbora eta markagailua bezalako aldagaiak izango dira zehaztuko direnak (Parlebas, 2008).

#### *Adimen motorra:*

Inteligentzia akzio motorraren antolaketa printzipioen oinarrien baitan ere egon daiteke; izan ere, kirol-jokoetan esaterako, soziomotrizitatea barne logikaren ezaugarri izanik, partaideak ez da organismo bizidun bat soilik, zeinak muskulu, hezur eta gainerakoak desplazatzen dituen espazioan zehar; baizik eta, pertsona hori gainontzeko kideekin elkarreaginean dabilen partaide bat da, beste pertsonen jokabideak eta inguruaren ezaugarriak deszifratu eta kodifikatu behar dituelarik, bere gaitasun kognitiboak erabiliz. Hortaz, jokabide motorra ez da mugimendura soilik mugatzen, partaidearen estruktura mentalak ere kontuan hartzen baititu (Dugas eta During, 2006).

Modu honetan, gainontzeko partaideek burutzen dituzten akzio zeinuetan jarri beharko dugu arreta, adierazpen baten bidez behatu zein interpretatu daitekeen portaera bat ulertu behar dugularik; betiere, kontuan izanik, estrategia baten baitan haien portaera beste bat izango dela sinestarazi dezaketela, desinformazioa transmititzea ahalbidetuz (Parlebas, 2008).

#### *Adimen emozionala:*

Gure sentimenduak ezagutu eta erabiltzeko edo besteen sentimenduak interpretatzeko aukera ematen digun trebetasun gisa definituko genuke adimen emozionala. Eta gauzak horrela, gaitasun ezberdinak gara ditzakegu alderdi honi dagokionez: norberaren emozioen eta horien adierazpenen kontzientzia hartzea, emozioak auto-

erregulatu ikastea, nortasunaren ezaugarri batzuk garatzea eta emozioei izena jartzea, haien kudeaketa errazago bat bilatuz.

Gauzak horrela, gorputz heziketaren baitan haurrak bere gorputza ezagutzearen bidez, dituen premiak, sentimenduak eta emozioak ere ezagutuko ditu, gorputza baita honakoak azalertzeko erabiltzen dugun tresna (Bautista, 2019).

Horrekin batera, norberarengan eta pertsonen artean gertatzen diren animo egoerak bereizi eta egoera horiek sortzeko leudekeen motiboak zein asmoak sumatzeko eta ulertzeko gaitasunak, emozioak identifikatzea, izendatzea, onartzea eta arazo emozionalak konponbideak bilatu eta aurkitzeko azpi-gaitasunak izatea dakar bere baitan.

Ondorioz, izaera soziala duten gaitasun eta jarrera pertsonalak garatzea ere badagokio hezkuntzaz arduratzen den eskolari; izan ere, arrazoiketa gaitasunak bezala, gaitasun emozionalak ere kontuan hartzekoak dira, norberekoikeria, indarkeria eta zekenkeria espirituala nagusituz doazen gizarte honetan. Eta adimen emozionalaren bitartez hortaz, sentipenak, norberaren izaera eta bulkada moralak elkarrengana bil daitezke (Oihartzabal, 2002).

Eta ikuspegi hau gorputz heziketako saioetan txertatuz, esan genezake proposatzen ditugun jarduerak partaideei emozio ezberdinak bizi araziko dizkietela inguratzen gaituen testuinguruaren arabera, kontuan izanik, kirol-jokoak ere kulturaren isla direla, konstrukzio sozial baten baitan txertatzen diren heinean (Urdangarin eta Etxebeste, 2005).

### Kanpo logika:

Pertsona eta talde sozial orok praktikak bere modura berinterpretatzeko aukera dauka, bere aspirazio eta motibazioak kontuan hartuta. Edo beste modu batera esanda, praktika motor baten barne logika kanpo ikuspegi batetik berinterpretatua izan daiteke, ohiz kanpokoak diren esanahi sinboliko berriak emanez. Hortaz, kontzeptu honi dagokionez, interpretazioa logika indibidual baten baitan eman daiteke; edota, talde sozial baten ikuspuntutik bestela.



Lehenengoari jarraiki, esan dezakegu partaide bakoitzak modu ezberdin batean erreakzionatzen duela jardundako praktikaren aurrean, bakoitzak norbere gaitasun kognitiboen arabera erantzuten baitio egoera jakin bati, barne motibazio eta sentimenduekin bat datorren esanahi bat esleituz, modu subjektiboan.

Bigarrenari dagokionez, berriz, ingurune bateko ohitura zein etnomotrizitateari esleiturik egongo da praktikari ematen zaion ulerkera, horrekin batera, praktiken ikusgarritasuna jarririko arauekin erabat harremandurik egongo delarik, jokoan barne logikaren garapen eta pertzepzioa bertako gizartearekin zuzenki erlazionaturik egongo baita (Parlebas, 2008).

Eta proposaturiko jardueraren baitan, ikertu nahi dugun aldagaia generoari dagokiona dela kontuan izanik, kanpo-logikan alderdi honetan sakontzea dagokigu:

#### *Generoa eta joko-jolasa:*

Pertsona baten identitatea sozializazioarekin batera sortzen doa, pentsatzeko modu, balore, jarrera, itxaropen eta portaerek bertan parte hartzen dutelarik. Sozializazio prozesu honetan eskolak paper garrantzitsua jokatzen badu ere, norbere identitatea, familia, jolasa eta komunikazioa bezalako esparruetan ere lantzen da, era berean, arau, rol eta estereotipo sozialak ere barneratuz. Hortaz, generoa lekuan lekuko gizarte eta kultura ikuskerarekin zuzenki lotuta dago eta geure portaeretan islatzen da.

Jarduera-fisikoaren praktikari dagokionez, esan genezake pertsonaren sozializazio prozesuarekin estuki loturik dagoen aldagai bat dela, zeina, bizi garen gizarteko kulturak determinatzen duen, kirolaren kultura eta generoaren kulturaren uztarketak, hain zuzen ere. Eta testuinguru honen baitan, egitearen, pentsatzearen eta sentitzearen normatibizazioa ematen da, gizarteak ezarririko arauak haustek santzio bat dakarrelarik (Mosquera, 2014).

Eskolak beraz, gizartearen eragina pairatzen duenez, eraldatu ezean tradizioaren zantzuak transmititzen dizkie haurrei, tradizionalki emakumeek egiten zituzten kirolak bere feminitatea zaintzen laguntzen zutelarik. Garai batean, nesken jolasak aspergarri eta zozo moduan agertzen ziren, eta mutilen jarduteko gai ez zirenen uste osoa zegoen. Gauzak horrela, eskola mistoa izatera pasatzean mutilen jolasak zirenez baliozkoenak, neskak balore zein kirol horietara moldatu behar izan ziren, beren burua baztertuta ez ikusteko; eta mutilen kasuan aldiz, ez zen horrelakorik pasa.

Nahiz eta, azken urteetan gorputz hezkuntzak genero ikuspegiari dagokionez bilakaera handia izan aurrerapausoa baimendu duten eraldaketak eginez, egun ere nahiko arrunta da nesken parte hartzea mutilekin alderatuz txikiagoa izatea. Gainera, biologia oinarri izan duen ikuspegia gailendu izan da arlo honetan, neska-mutilen arteko ezberdintasunak naturalak direla ziurtatuz; nahiz eta, beste hainbat alderdi ere hartu beharko liratekeen kontuan.

Familia zein komunikabideek ere eragin zuzena dute alor honetan. Jostailuen publizitatetik hasita, elkarrizketetara arte, emakumea kirol munduko erreferente edo eredurik gabe geratzen da normalean. Izan ere, emakumea oraindik bigarren plano batean dagoela ikus dezakegu. Eta honen aurrean, ezinbestekoa da parekidetasunean oinarrituriko kirol zein jarduerak sustatzea, zeinetan emakumezkoen balioek gizonezkoen onarpen bera izango duten eta emakumezko figura ere kontuan hartzea bermatuko den (Morales, 2007).

Gizon-emakumeen arteko parekidetasunaren kasuan, gainontzeko balore sozialetan ez bezala, berdintasuna aldebakartasunez txertatu da gizartetik kirolera. Hortaz, kirol esparruak dituen erresistentziak direla medio, ez dio ekarpenik egin marko sozialari, berdintasuna bultzatzen duten praktikei dagokienez. Baina, geure jarrera zein ikuspegia aldatu ezean, kirolak ez du bere horretan parekidetasun erreal baterako bidean ekarpenik egingo.

Eta arazo honen abiapuntua jaiotzetiko binarismo sexual estatikoan kokatzen da, geure ingurune sozialean bete beharreko funtzio, jarrera eta jokabideekiko espektatibak sortzen direlarik. Rolan banaketa sozial honek izugarriko eragina izan du tradizionalki maskulinoztat jotzen diren kirola bezalako esparru batean, zeina gizonengandik eta gizonentzako sortua izan den, emakumeak femeninoztat jotzen ziren jarduerak burutzeraz mugatu direlarik. Ondorioz, jardueren banaketa estereotipatu honek emakumezkoek kirol munduan parte hartzeko zailtasunak ekarri ditu, emakumezko kirolarien infantilizazioa eta giza-baliabide zein baliabide-ekonomiko eta materialen banaketa ezberdina kasu.

Kirol arloko emakumeek egunerokotasunean topatzen dituzten oztopo batzuk aipatze arren, komentario matxistak, jarrera diskriminatzaileak, emakumezkoen gorputzen sexualizazioa eta jazarpena normalizatzea azpimarra genitzake (Azurmendi eta Laskibar, 2016).

Baina kirol arloan ez ezik, joko-jolasen baitan ere ematen da genero arteko ezberdintasuna. Kanpo logikaren baitan, Euskal Herriko kulturak emakume eta gizonezkoen arteko zereginen banaketa egiten du, gizonezkoek etxeko errepresentazioa gauzatzen duelarik jardun publikoan eta emakumea berriz, etxeko arteko harremanak sustatu eta taldearen barneko ongizatea bermatzera zuzendua egonik. Hala ere, joko-jolasen gehiengoa gizon zein emakumeek elkarrekin jolastera bideratuta dago; nahiz eta, praktika batzuk genero bati soilik bideraturik egon.

Mutilen kasuan, irabaztearen plazerraz gozatzen ikasten dute; neskek aldiz, heztearen ardura eta kooperazioa bezalako kontzeptuak barneratzen dituzte, egunerokoan gerta daitezkeen gatazkak kudeatzen ikasiz. Elkarrekin jolasten dutenean ordea, bizikidetzaren baloreak barneratzen dituzte, elkarbanatzearen garrantzia ulertuz, taldeko kide guztiak haien ezaugarri propioekin onartzearen bidez talde bat osatzeko (Urdangarin eta Etxebeste, 2005).

Ondorioz, heziketa fisikoak, zeinak generazio berrien sozializazioa lantzen duen, proposaturiko jardueren bidez ikasleen afektibitatea eraikitzeo aukera dauka; eta hortaz, benetan baloratu beharko dugu errendimendua eta lehiakortasun sozialaren baloreak ala elkarbanatuz gozatzearenak sustatu nahi ditugun, hezkuntza programetan aipatu jarduerak txertatu ahal izateko (Otegi, et al., 2014).

### Gorputz hezkuntza zein aisialdi hezkidetzailaren bila:

Ez da erraza gizarte hau aldatzea; izan ere, interes ekonomikoak jarri dira sozialen gainetik eta hezkuntza-politiketan igartzen da hori. Jarrerak eta jokabidek aldatu behar dira heziketa jardunean sortzen diren zailtasun eta arazoak modu orokor batean ulertu eta soluzioak ere testuinguru horren baitan proposatuz. Hortaz, parekidetasun ezaren aurrean ere, kontuan hartu beharko dira egunerokotasunean pairatzen diren egoerak baldintzatzen dituzten faktoreak, izan sozialak, ekonomiko edota politikoak. Izan ere, guztientzako heziketa parekidea lortzea baita bere erantzukizuna (Fuente eta Jáuregui, 2003).

Hezkuntzak gizakia lagundu behar du bere egunerokotasunetik hasita, ekintzak aztertu eta kritikatu, berarekin konprometituz bizi duen egoeraren hausnarketaren bidez; modu honetan, askatasunez aukeratzeko bere harremana munduarekiko, besteekiko eta norberarekiko. Beraz, ez datza ikasleari datu zehatzak ematean, datuak humanizatzean eta bizitzan zehar lan intelektual zein motorrerako tresnak era kritikoan eskaintzean baizik (Wain, 2015).

Gizon eta emakumeok kultura patriarkalean sozializatu gara, besteen artean, jokabide eta jarrera sexistak, matxistak eta homofoboak gure ikasketaren zein harreman sozialen parte direlarik eremu guztietan. Errealitate hori eraldatuko badugu eta gizakia zaintzea bizitzaren oinarri izatea nahi badugu, generoari dagokion ikuspegi feminista ezinbestekoa zaigu. Izan ere, aipatu ildoak deseraikitze prozesuak erabiltzen ditu, geure kultura eta pentsamendu androzentriko eta eurozentrikoa era kritikoan aztertu eta gizon-emakumeak banaka zein kolektiboki eraldatzeko, hezkuntza proiektuan ematen diren harremanak aldatze bidean estrategiak proposatuz (Díaz, 2018).

Esan bezala, irakaskuntza zein aisialdia pertsonaren garapenaren mesederako antolatu beharra dago, eta garapena aipatzen dugunean garapen integrala izan behar da; hau da, garapen psiko eta soziomotorra, garapen emozionala eta garapen kulturala. Gauzak horrela, aisialdia proiektu pedagogiko integralean txertatu behar da. Proiektu horrek pertsonari garatzeko laguntza eskaintzeaz gain, komunitate kulturean bere burua txertatzeko laguntze ere eskaini behar diolarik.

Ez da kasualitatea askotan Gorputz Hezkuntzako arloa jolas garaia balitz bezala hartzea; finean, prozesu pedagogikoak ludikoa den guztia garrantzi gutxikoa balitz bezala kontsideratzeko arriskua baitago. Jolasa esperimentazioa eta deskubrimenduarekin lotzen da. Ludikotasuna pertsonaren garapenerako ezinbestekoa bada ere, pertsonen arteko harremanetarako ludikotasunak bere biziko garrantzia du.

Emozioak biziarazi egin behar dira, emozioek sorrarazten dituzten aldaketa fisiologikoak identifikatu eta horrek gure metabolismoan dakarren aldaketaren jabe izateko tresnak eskaini behar dizkiegu gure ikasleei. Horrez gain, jolas eta jokoak ez-ahozko komunikazioa lantzeko tresna aberatsa dira. Eguneroko bizitzan ematen den errealitatea jolas eta jokoetan ere eszenifikatzen da eta era fiktizio horren bidez bere jarrerak aztertzekeo baliagarria bihurtzen da. Komunikazioa elkarrekintza motorra da, eta nahiz eta eremu ludikoan kokatu, eguneroko bizitzan transferentzia zuzena dauka (Egibar, 2006).

Hala eta guztiz ere, ikasleen heziketan ez ezik, irakasleen formazioan ere arreta jarri beharra daukagu. Ildo honen baitan Emakundek Gasteizko Irakasle Eskolan egin berri duen ikerketa batean, etorkizunari begirako hainbat erronka zein proposamen zehazten dira; hala nola, genero ikuspuntua titulazio berrietan sartzea; estereotipoak, jokabideak eta munduaren ikuskera androzentrikoa inkontzienteki zein puntura arte dauzkagun sartuta ikustea, hots, kurrikulum ezkutua azalaraztea; erabiltzen dugun hizkuntzaren eraginaz jabetzea; "sexu bakoitzari dagozkion" ikasketak eta lanbidea eraldatzea; eta azkenik, hausnarketa eta eztabaida kritikorako tresnak eskaintzea, sentsibilizazioarekin batera (Llorente, 2011).

## HELBURUAK:

Lehenik eta behin, esku hartze hau gauzatzeko beharra nondik sortu zaidan azaldu nahiko nuke. Badira sei urte inguru nire herriko Ttakun Kultur Elkartean aisialdiko hezitzaile moduan lanean hasi nintzenetik, eta gaurdainoko ibilbide honetan, hezkuntza ez-formalaren baitako esparru gehiago ezagutzeko aukera izan dut, udalekuak, euskara sustatzeko proiektuak, autogestioarekin loturikoak eta jarduera fisikoaren ingurukoak tarteko. Ohikoa den bezala, aisialdian toki garrantzitsua hartzen du jarduera fisikoak, eta horrekin batera, jolasak.

Jarduerak proposatzerako garaian, eta gizarteak hauetan duen islaren jakitun izanik, markagailua duten eta eskakizun fisiko handia suposatzen duten jarduerak haur zein gazteen arteko genero ikuspegiari dagozkion ezberdintasunak erreproduzitzen dituztela argi ikusi ahal izan dut, modu kontziente edo inkontzientean, txikitatik era ezberdin batean hezten baititugu neska edo mutil moduan sozializatzen direnak. Baina, markagailurik gabeko joko-jolasen kasuan, eta gaitasun aldetik neskek zein mutilek modu parekatuan parte hartzea ahalbidetzen dutenen kasuan ere, nahiz eta hasiera betean jarduerak berak parekidetasuna bermatu beharko lukeen, kasu askotan mutilen partehartzea neskenarekiko gain-jartzen delakoan nago.

Eta hezkuntza helburua haur eta gazteak parekidetasunean, aukera berdintasunean eta aniztasunean hezi eta elkar-bizitzea denez gero, bai motrizitatean eta baita gizarteko aspektu guztietan, oro har, baloi eseria bezalako joko-jolasen bidez hezkuntza hezkidetzailera bermatzeko aukera izango genukeen ala ez egiaztatu nahiko nuke. Ondorioz, jarraian azalduko da lan honen bidez joratu nahi dudana helburu nagusia:

1. Pilota eseria tradiziozko joko-jolasak heziketa parekide baterako eskaintzen dituen balio zein baliabideak aztertzea.
  - a. Pilota eseria joko-jolasaren barne logika ezaugarriak azaltzea.
  - b. Pilota eseria joko-jolasean partaideek generoaren arabera hartzen dituzten parte hartzeko rolak azaldu eta aztertzea.
  - c. Pilota eseria joko-jolasean hezitzaileak buruturiko esku-hartzeak partaideengan duen eragina aztertu eta azaltzea.

- d. Pilota eserian irakaslearen estrategia didaktikoak erakargarriak direla aztertzea generoaren oreka lantzeko.

## HIPOTESIAK:

1. Jarduera baten barne-logikak nahiz eta hasiera batean parekidetasuna bermatu, gizartearen eraginak genero arteko ezberdintasunak ahalbidetzen ditu.
2. Hezitzailearen feedbackaren bidez partaideen genero-rolak deseraiki daitezke, partehartze parekideago bat lortuz.

## METODOLOGIA:

### Parte hartzaileak:

#### *Ttakun Kultur Elkarteak:*

Duela hamar urtetatik Lasarte-Orian euskararen eta euskal kulturaren normalizazioa sustatu nahian dabilen elkarteak da. Egitasmo edo jarduera puntual solte batzuk izatetik, programa, egitarau eta ekintzez osatutako urteroko programa iraunkor eta irmo bat izatera iritsi da urteen poderioz. Programa horren ardatz nagusia, erakunde gehienetan bezala, giza baliabideetan oinarritua da: ia 500 bazkide, hainbat boluntario, begirale, kolaboratzaile... eta jomuga, noizbait Lasarte-Oria euskalduna ikusteko eta disfrutatzen izatea, herritar guztiak bidelagun izanik (Gonzalez, 2017).

Egitasmo horien artean kokatzen da Kuadrillategi deritzona, lagunartean euskararen erabilera bultzatzeko asmoz sortua, Ttakun Kultur Elkarteak, Muntteri AEK eta Udalaren arteko elkarlanean, Kuadrillategi Ikerketa eta Aholkularitza Elkartearen laguntzaz. D edo B ereduetan ikasten ari diren DBHko lagun taldeetara zuzenduta dago ekimena. Bertan, koadrilak astean behin elkartzen dira bi orduz, aisialdi giroan, jolasak, tailerrak, hizketaldiak... euskaraz eginez, taldearen aisialdiko hizkuntza ohiturak euskalduntzeko helburuarekin.

Lan honetako parte hartzaileak beraz, Lasarte-Oriako Kuadrillategi egitasmoko gazteak izan dira, zeinak 14-15 urte bitarteko 11 neska-mutilek hartzen duten parte bertan, DBH3ko taldearen baitan. Ondorioz, kontuan harturiko lagina ez zorizkoa eta iritzizkoa izan dela esan dezakegu.

Talde hau hautatzearen arrazoietakoa bat taldea genero ikuspegitik parekatua izatea izan da; izan ere, genero rolek jokoan duten eragina aztertzea baita helburu nagusietako bat. Horrez gain, taldea kopuru ertainekoa izatea ere aproposa suertatzen da, buruturiko esku-hartzearen behaketa egiterako garaian aldagai honek arazorik suerta ez zezan. Amaitzeko, udan udaleku ibiltarien bitartez eta kurtsoan zehar Kuadrillategi egitasmoaren bitartez taldea ezagutzeak ere izan du eragina; modu honetan, gazteen jokabide zein iritziak, izateko era eta taldean betetzen dituzten rolak alde aurretik ezagutzeko aukera izan baitut.

### Tresnak eta prozedura:

Parte hartzaileek 11 jokalarik osaturiko talde batean jardun zuten, mutil bezala sozializatu diren 6 eta neska bezala sozializatu diren 5 pertsonak osaturik, hain zuzen ere. Espazio eta denborari dagokionez, 12x9 metroko zelaian jardun zuten, 13 minutuz jolasten edo jokoa bukatu arte; izan ere, ikerketa batean baieztatu bezala, testuinguru honetan kokatuz partaideek rol ezberdinetan jokatzeko aukera dute (Oboeuf, Collard eta Gérard, 2008).

Gauzak horrela, buruturiko eskuhartzea hiru fasetan bereiz dezakegu:

Lehenengo fasean partaideek baloi eseriaren partida bat jokatu zuten, zinetan bereizten ziren rolak identifikatzeko asmoz, hala nola, baloia hartzen zutenen rola eta iheslarien rola, behatzaile papera jokatu nuen datu kuantitatiboak bilduz, baloia neskek edo mutilek hartzen zuten hain zuzen ere; hortaz, behaketa modu zuzenean gauzatu zela esan dezakegu, jokatzeko pilota bakarra erabili zenez gero erraza suertatzen baitzen begi hutsez jarduera behatu bitartean orri batean baloia hartzen zuen jokalaria neska ala mutila zen zenbatzen joatea, zenbaketa honetan erroreak gauzatzea oso zaila izanik.



Bigarren faseari dagokionez, taldea biltzearekin batera lehenengo fasean lorturiko emaitzak erakutsi eta feedback bat emateaz gain, bereiziriko rolen inguruko hausnarketa bat gauzatu genuen. Hasiera batean jardueran zentratu ginen, ondoren generoari dagokionez haien egunerokotasunean pairatzen dituzten errealitate ezberdinak identifikatzeko asmoz era orokorrago batean, betiere, gorputz hezkuntza esparruari arreta handiagoarekin erreparatuz.

Hirugarren fasean ostera, baloi eseriko partida gauzatu zuten lehenengo aldiko baldintza berdinetan. Nik, oraingoan ere behatzaile papera gauzatu nuen, baloia hartzen zen aldiro pertsona hau neska ala mutila zen zenbatuz.

### *Pilota eseriaren joko:*

Hezkuntza esparru formal zein ez-formalean hainbatetan aritu naiz joko honetan jolasten, izan haur bezala, edota gerora, baita hezitzaile modura ere. Hala ere, normalean joko-jolasak lehen hezkuntzako garaira mugatzen direlakoan nago, eta oso interesgarria litzake bigarren hezkuntzako gaztetxoekin ere modu honetako jarduerak gauzatzea, egun, hauetan islatzen diren gizarteko genero ezberdintasunak parekatze bidean tresna erabilgarri izan baitaitezke, betiere, modu kritikoan lantzeko ahalegina egiten badugu, eta gaztetxoen kasuan, jada heldutasun nahiko dute ematen diren ezberdintasun eta rolen zergatiak identifikatu eta ulertzearen bidez hauek eraldatzeko pausua emateko, hezitzaileek horretarako espazioa eskaintzen badiete behintzat.

### *Pilota eseriaren hautapenaren justifikazioa:*

Hasteko esan, gorputz heziketako irakasgaiaren baitan eta esku hartzea buruturiko jardueran, pilota eseria joko-jolasean hain zuzen ere, ikasleen parte hartzea 10 interakzio minutukoa izan dela; eta hortaz, partaideen jarrerak behatu eta hauetan eragiteko aukera are zabalagoa eskaintzen digu gainontzeko irakasgaiekin alderatzen badugu; jakin baitakigu, matematika edo historia bezalako arloetan, esaterako, ikasleek duten parte hartzea askozaz murriztagoa izan ohi dela.

Horrekin batera, pilota eseria jokoak bere barne logika dela medio, partaideen etengabeko erabaki hartzea bultzatzen du, kontzeptu hau adimen motorraren baitan kokatzen dugularik. Hortaz, gauzatu beharreko aukeraketek (baloiaren bila joan ala ihes egin, baloia kideei pasa ala ematera joan...) partaideen jokabideen inguruko interpretazio sozio-afektiboa egitea ahalbidetzen digu.

Orokortasun honen baitan, behatzeko hautaturiko jarduera baloia eskuetan hartzearena izan da, partaideek bi eskuekin baloia harrapatzen duten unea, hain zuzen ere, izan eserita edo zutik daudenean; izan ere, jokalariak baloia hartzen duen momentuan suertatzen zaio aukera gauzatzeko beta, bere esku egonik baloiarekin zer ekintza burutu (bota, pasa...), eta hortaz, ekintzaren zentro bilakatuko da. Gauzak horrela, pilota zeinek daukan jakitearekin batera jardueraren zentroa nork duen jakin genezake, eta ondorioz, nor den jokoaren baitan boteredun.

#### *Pilota eseria jokoaren deskribapena:*

##### *Hasierako egoera:*

Oztoporik gabeko eremu lau batean jokatzen da eta eremuaren neurriek ez dute garrantzia handirik hartzen, jokalari kopuruaren arabera handi zein txiki baitaitezke; hala ere, 10-15 jokalarik jolasteko saskibaloiko kantxa baten neurria jotzen da gomendagarritzat.

Materialari dagokionez, baloi bigun bat litzateke aproposena, gainontzeko jokalariei botatzeko erabiliko baitugu; beraz, garrantzitsua da segurtasuna bermatze aldetik minik emango ez duen baloi bat erabiltzea.

Rolei dagokienez, ez dira egonkorrak, baloia eskuartean izan edo ez izatearen arabera aldatzen baitira, hauen artean iheslari rola eta erasotzaile rola bereizten direlarik, hurrenez hurren.

### *Garapena:*

Joko-jolas hau partaideetako batek baloia eskuetan izanik hasiko da. Jokoan zehar baloia eskuetan hartzen duenak harrapatzaile rola beteko du, beste guztiak harrapatzeko helburua izanik. Gainontzeko jokalaria harrapatuak izateko baloia jaurti beharko die, lurra ukitu aurretik haien gorputza ukitzen duelarik. Harrapatzaileak baloia eskuetan duenean ordea, ezin izango du lekualdaketarik egin eta hartu duen lekutik bertatik jaurti beharko du. Baldintza hauek beterik baloia jaurti eta jokalariren bat ukitzen badu aurrez lurra ukitu gabe, ukitua izan den jokalaria kolpatua izan den lekuan eseri beharko du. Kolpatuak izan diren jokalaria hauek, ezingo dute bertatik mugitu baloia berreskuratu bitartean. Behin baloia berreskuratu dutelarik, libratzeko bi aukera izango dituzte; bata, baloia lurrean eserita dagoen beste jokalaria bati pasatzea, hau ere libratua izan dadin, nahiz eta, zutik dauden jokalariek pasea moztu ahal izango duten; eta bestea, baloiarekin altxatzea izango litzateke, modu honetan, baloia beste jokalaria bat kolpatzeko asmoz jaurtiko duelarik.

### *Bukaera:*

Memoria gabeko joko-jolasa da honakoa, hortaz, jolasean ez da irabazle ez galtzailerik egongo, ez eta markagailurik ere. Gauzak horrela, jolasa normalean partaideek edota hezitzaileak erabakitzean amaituko da; nahiz eta, oso kasu berezietan, jokalaria bat izan ezik gainontzeko guztiak eserita gera daitezkeen, momentu horretan ere, joko-jolasa amaitutzat emanaz.

Parte hartzaileen arteko harremanei dagokienez, interakzio motorra modu anbiguoan ematen da; eta ondorioz, kideen arteko aurkaritza eta kooperazioa aldi berean eman daitezke. Beraz, baloi eseriak eszenatoki aproposa eskaintzen digu partaideen arteko harremanez gain, parte hartzeari dagozkion rolak aztertu ahal izateko.

## Ikertzailearen rola:

Kasu honetan, astero gazteen aisialdiko hezitzaile naizenak hartzen dut ikertzaile papera; eta ondorioz, pertsona ez-neutrotzat jo dezaket nire burua, partaideekin eremu afektibo bat elkarbanatzen dudan heinean. Baina, hala ere, eta, nahiz eta bestelako saio normal bat izango balitz bezala gauzatuko den esku-hartzea, ikerlariaren interbentzioa ahalik eta neutroena izaten ahaleginduko naiz; betiere, kontuan izanik, hezitzaile modura harturiko aukera orekaren aldekoa izango dela.

Lehenik eta behin, ekintzaren inguruko azalpenak emango dizkiet ohi bezala; eta ondoren, beste saioetan ez bezala, jokoan zehar behatzaile papera hartzera mugatuko naiz, haien jarrera eta harturiko roletan ez eragiteko asmoz; izan ere, gainontzeko saioetan ekintzak burutu bitartean animatzen edo haiekin batera jolasten aritzen baitnaiz, partehartzaile rola betez.

Behin lehenengo jokaldia burututa, obserbaturiko alorrak azaltzearen bidez feedback bat emango diet, haiekin genero rolen inguruko hausnarketa bat egin eta jaso duten heziketa ezberdinak jokoan eragin ahal izan duen genero arteko ezberdintasuna ulertu eta bizipenak elkarbanatzeko asmoz.

Behaketaren bidez jasoriko datuak aurkezterako garaian, partaideen kopurua genero ikuspegitik orekatua izateak emaitzak bere horretan, hau da, estatistika erabili gabe garbi interpretatzeko aukera emango duenez, jaso bezalaxe erakutsiko dizkiet.

Arestian aipatu bezala, joko neutro honetan generoari dagokion partaidetza orekatua bermatuko ez denaren hipotesia izanik, haiekin generoaren, haiek gorputz heziketako klaseetan jasotzen duten hezkuntza ereduaren eta egunerokotasuneko errealitatean generoari dagokionez betetzen dituzten rolen zein jasaten dituzten zapalkuntzen inguruko hausnarketa bat gauzatuko dugu.

Bertan, kontuan hartu beharra dago talde honekin elkarlanean kurtso osoa daramadala, eta horrek, gure artean gai hauek jorrazteko konfiantza egotea ahalbidetzen duela; gainera, ni emakume bezala sozializatzeko ere

ziurrenik eragina izango du elkarrizketan, kontuan izanik, nik ere gizarte honetan emakume izateak dakarren eraikuntza soziokulturala bizi dudala eta haien bizipenak pairatu edota ulertzen ditudala.

Hala ere, esan beharra daukat proposaturiko esku hartzea esplorazio xume bat izango dela, eta ikerketa hau berriro gauzatu behar izango banu, modu zehatzago batean hartuko nukeela kontuan partaideengana zein hitzekin zuzendu haien jarrera zein roletan eragin asmoz.

Gauzak horrela, feedbacka eta hitza tresna bezala erabiliz, jokoan bizitako egoera eraldatzeko gaitasuna dudan ala ez ikusi nahi izan dut, eta horretarako, aurreko baldintza beretan beste partida bat jokatzeari ekingo diogu, neska eta mutilen arteko partaidetza parekatuko den ala ez ikusi asmoz. Beraz, lehenengo kasuan bezala behatzaile rola betetzera mugatuko naiz; eta amaitzeko, bigarren partida osteko behaketaren ondorioak azalduko dizkiet, modu sinplean.

## **Eskuhartzea:**

### **Lehenengo jokaldia:**

#### *Jardueraren deskribapena:*

Hasteko, partaideak zelaian zehar sakabanatuta kokatu dira eta denbora martxan jartzearekin batera baloia ere jokoan jarri da. Esan bezala, nik ez dut inongo esku hartzerik burutu bertan eta baloia neska edo mutil batek hartzen zuen apuntatzera mugatu naiz. 13 minutuak amaitzean jokoa geratu dut.

#### *Emaitzak:*

Burururiko behaketa eta eskuhartzearen bidez eskuraturiko emaitzak ikerketa arlorako ez ezik, hezkuntza arlorako ere interesgarriak suerta daitezke; izan ere, hipotesiak beteko balira, proposaturikoa aktibo dagoen irakasle batek gauzatzeko baliagarria izan daiteke, erabilitako indizea erraza denez gero.

*Partaideei dagokienez:*

- Baloia harrapaturiko aldiak:

Neskek harrapaturiko aldiak + mutilek harrapaturiko aldiak =

$$38 + 69 = 107 \text{ aldiz}$$

- Harrapaketen zenbatekoa pertsonako:

$$\frac{\text{baloia harrapaturiko aldiak}}{\text{partaide kopurua}} = \frac{107}{11} = 9,7 \text{ aldiz}$$

- Minutuko parte hartzea pertsonako:

Harrapaketen zenbatekoa pertsonako / partidaren iraupena =

$$9,7 / 13 = 0,75 \text{ minutuko.}$$

*Neskei dagokienez:*

- Baloia harrapaturiko aldiak: 38

- Harrapaketen zenbatekoa neskako:

$$\frac{\text{neskek harrapaturiko aldiak}}{\text{neska kopurua}} = \frac{38}{5} = 7,6 \text{ aldiz}$$

- Nesken parte hartzea minutuko:

Harrapaketen zenbatekoa neskako / partidaren iraupena =

$$7,6 / 13 = 0,58 \text{ minutuko.}$$

*Mutilei dagokienez:*

- Baloia harrapaturiko aldiak: 69

- Harrapaketen zenbatekoa mutilko:

$$\frac{\text{mutilek harrapaturiko aldiak}}{\text{mutil kopurua}} = \frac{69}{6} = 11,5 \text{ aldiz}$$

- Mutilen parte hartzea minutuko:

Harrapaketen zenbatekoa mutilko / partidaren iraupena =

$$11,5 / 13 = 0,88 \text{ minutuko.}$$

Balore erlatiboeti erreparatuz emaitzetan ikusi ahal izan dugunez, neska modura sozializaturiko partaideek partida osoan zeharreko baloi harrapaketen ia erdia gauzatu dute; eta mutil modura sozializaturiko partaideek ondorioz, ia bikoiztu egin dute nesken balioa. Beraz, baloi-eseria nahiz eta hasiera batean joko neutro bat izan, argi ikus daiteke mutilek baloia hartzeko joera handiagoa dutela, neskek, baloiarengandik ihes egitera maizago jotzen duten bitartean.

Gainera, jokabide horrek jokoaren zentroa mutila izatea ekartzen du, eta ondorioz, burutuko duen ekintzaren aukeraketa gauzatzeko boterea, oro har, hark izan duela argi geratzen da. Nahiz eta mutilen kasuan nesken baino partaide bat gehiago izan, taldea generoari dagokionez parekatua dela esan genezake, pertsona batek soilik ezin baitu emaitzetan aldaketa esanguratsurik eragin.

Lorturiko emaitzak interpretatzerako garaian, kirolaren kultura eta bizi estiloarekin zerikusia izan dezaketela esan nezake; izan ere, pertsona batek eginiko jarduera fisikoa modu ezberdinean bizi baitu neska edo mutil bezala sozializatua izan bada, eta baieztapen hori eguneroko bizitzan izan duten errealitate ezberdinaren fruitua dela esango nuke. Honen baitan, nire testuinguruarekin harreman estuena duen faktorea aipatu nahiko nukeelarik:

Egungo hezkuntza esparruari erreparatuz gero, kurrikulum ezkutuak duen garrantzia azpimarratu nahiko nuke. Honen bidez, geure gizartearen baloreak transmititzen baitzaizkie gazteei modu inkontzientean, komentario, begirada edo bestelako keinu txiki baina aldi berean esanguratsuekin; horrek, mutil eta neskek modu ezberdinean heztea dakarrelarik.

Laburbilduz, ezin esan genezake neska eta mutilen balioen arteko tartea ia bikoitza izatea kasualitate hutsa denik, izandako ereduaren ezaugarri baten ondorioa baizik; eta adibide gisa, sumisioa izan daiteke erakusleetako bat, emakumezkoen sumisioa gizonezkoen parte hartzearen aurrean, hain zuzen ere.

Nahiz eta, pilota eseria joko-jolasa generoaren ikuspuntu sozialaren arabera neutroa izan, bertan ematen den parte hartzean generoaren araberrako desoreka bat azaltzen da.

## Bigarren jokaldia:

### *Jardueraren deskribapena:*

Lehenengo fasean bezalaxe, partaideak zelaian zehar sakabanatuta kokatu dira eta denbora martxan jartzearekin batera baloia ere jokoan jarri da. Esan bezala, nik ez dut inongo esku hartzerik burutu eta baloia neska edo mutil batek hartzen zuen apuntatzera mugatu naiz. Partida 8 minututara heldu denean partaide bakarra, kasu honetan neska, geratu da zutik baloia eskuetan zuela. Nahiz eta amaiera mota hau baloi eseria joko-jolasean ez den ohikoena, kronometroa geratu eta partida bukatutzat eman dugu.

### *Emaitzak:*

Emaitzak interpretatu aurretik, lehenengo eta bigarren partidaren artean buruturiko hausnarketaren laburpen txiki bat egin nahiko nuke: neskak zein mutilak era aktiboan aritu dira haien iritzia elkar-banatzeko, baina egia da, neskek gehiago hartu dutela hitza mutilek baino. Jokoan zentratuz, ateratako ideien artean honakoa nabarmendu da: izandako jokabideen inguruan hausnartu ondoren argi ikusi dute baloia neska eta mutil baten ondotik pasatzean hasiera batean biak hasten zirela korrika baloia harrapatzeko asmoz, baina denbora gutxira, neskak mutila baino beranduago iritsiko zenaren ustea izanda ihes egiteko hautua egiten zuela, hasiera bateko helburua aldatuz. Eta nahiz eta momentuan jokabide hori izan, benetan baloia harrapatzeko mutilek besteko gaitasuna dutela pentsatzen dutela adierazi dute.



*Partaideei dagokienez:*

- Baloia harrapaturiko aldiak:

Neskek harrapaturiko aldiak + mutilek harrapaturiko aldiak =

$$34 + 32 = 66 \text{ aldiz}$$

- Harrapaketen zenbatekoa pertsonako:

$$\frac{\text{baloia harrapaturiko aldiak}}{\text{partaide kopurua}} = \frac{66}{11} = 6 \text{ aldiz}$$

- Minutuko parte hartzea pertsonako:

Harrapaketen zenbatekoa pertsonako / partidaren iraupena =

$$6 / 8 = 0,75 \text{ minutuko.}$$

*Neskei dagokienez:*

- Baloia harrapaturiko aldiak: 34

- Harrapaketen zenbatekoa neskako:

$$\frac{\text{neskek harrapaturiko aldiak}}{\text{neska kopurua}} = \frac{34}{5} = 6,8 \text{ aldiz}$$

- Nesken parte hartzea minutuko:

Harrapaketen zenbatekoa neskako / partidaren iraupena =

$$6,8 / 8 = 0,85 \text{ minutuko.}$$

*Mutilei dagokienez:*

- Baloia harrapaturiko aldiak: 32

- Harrapaketen zenbatekoa mutilko:

$$\frac{\text{mutilek harrapaturiko aldiak}}{\text{mutil kopurua}} = \frac{32}{6} = 5,3 \text{ aldiz}$$

- Mutilen parte hartzea minutuko:

Harrapaketen zenbatekoa mutilko / partidaren iraupena =

$$5,3 / 8 = 0,66 \text{ minutuko.}$$

Balore erlatiboeti erreparatuz emaitzetan ikusi ahal izan dugunez, bi partidetan instrukzioak ez du egoera aldatzen, hau da, pertsona batek baloia hartzeko duen probabilitatea, eta hortaz, jokoan zehar izandako parte hartzea berdin mantentzen da. Emaitzak ikusita, hasiera batean nahiz eta joko neutro bat izan, genero arteko parekidetasuna bermatzen ez bazen ere, feedbacka tresnatzat erabiliz eta hausnarketa bat gauzatuz, partaideen arteko parekidetasuna bermatzea lortu dela esan daiteke, eta kasu honetan, mutilek baloia hartzerako garaian minutuko bi dezima jaitsi izanak erakusten digu, ordena permutatu egin dela baldintza berak mantenduz; eta bigarren kasu honetan, nesken parte hartzea handiagoa izan dela mutilena baino.

Hortaz, esan dezakegu, partaideak kontzientziatuz eraldaketa bat lortu dela, eta kontzientziatu ezean, neska-mutilen arteko partaidetza bere horretan mantenduko litzatekela. Izan ere, argi ikusi dugun moduan, barne logikaz haratago, irakasleak ekintzaren inguruko interbentzioak egiten parte hartzen duen heinean, errealitatea molda dezake. Baina, feedbacka ez da efikaziaren ildotik soilik jorratzen, hau da, ez da gauza bat ongi edo gaizki dagoen esatera mugatzen; aitzitik, gizartea eraldatzeko ekintza bat izan daiteke.

Izan ere, gizarteak egoerei generoa esleitzen dienez gero, partaideek ere generoaren arabera jokatzeko dute, baina, esan bezala, jokabide hau parte hartzearen inguruan jasoriko datuen feedbacka eman ez alda daiteke. Futbola esaterako, segregazioa eragiten duen jarduera izan daiteke, neska eta mutilak aparte aritzen diren heinean. Neskek, gizarte patriarkalaren zama jasaten dute, kurrikulum ezkutuan agertzen zaigun berbera. Eta nahiz eta, irakasle aurrerakoiak ere egoera horren jakitun diren eta jarduera neutroak proposatzen dituzten, ezin ahantzenezake planteaturiko jarduerak ez ezik, bertan parte hartzen duten pertsonen ere beren baitan daramatzatela aipatutako ereduak; eta ikusi dugunez, feedbacka errealitate honen aurka borrokatzeko tresna baliagarri bihurtzen zaigu.

Hezitzaile papera burutzen duenak hortaz, adi egon beharra dauka joko-jolasak planteatzerako garaian, baldin eta bere helburua parekidetasuna bermatzea baldin bada. Didaktikaren baitan,

efikaziaren ikuspuntua ikuspuntu patriarkaetik etor baitaiteke. Eta beraz, gauzak ongi edo gaizki egiteari garrantzia eman beharrean, gizartea eraldatzeko bidea izan daiteke hezitzaileak erabilitako didaktika.

Gainera, nahiz eta ikerketa honetan ez dugun aldaketa hau sakontasunez aztertu, baliteke emakume zein gizonezkoekin aipatu lanketa burutuz gero, agian gizonezkoek ere haien jarrera aldatzearekin batera beti baloia haiek hartuko dutenik ez pentsatzea, eta ondorioz, emakumeen parte hartzea handitu ez ezik, gizonezkoek ere seguruenik kasu gehiagotan emango lukete iheslari rola betetzeko pausua.

Modu honetan, posible izango litzateke emakumezkoak ahaldundu eta gizonezkoek, horren jakitun izanik, atzera pausu bat eman ahal izatea. Gainera, esan beharra dago taldeko klima eta efikazia elkarreraginean dabiltzala; izan ere, taldearen klima eta partaideek egiten dutena lotuta daude, haien jokabideetan eta jokoan zehar egiten dituzten harremanetan eragin zuzena izanik. Klima aproposik gabe, litekeena da emaitzak ere ez hain eraldatzaileak izatea.

Pilota eseria joko-jolasean hasiera batean partehartzeari dagokion generoaren araberako desoreka bat azaltzen bazen ere; hezitzailearen esku-hartzeak eragina izan du parte hartze horren joera iraultzeko.

## ONDORIOAK:

Ikusi dugunez, kirola eta jarduera fisikoa fenomeno sozialak dira, zeinak hezteko intenzionalitatearekin erabiliz balore jakin batzuk sustatzeko instrumentu izan daitezkeen. Balore hauek imitazioz ikasten dira, eta bizipenen bidez pixkanaka barneratu ostean, geure bizitzetan aurkitzen ditugun egoera bertuetan aplikatzen ditugu. Jarduera fisikoak hortaz, jarrera eta errutina hauek praktikan jartzeko aukera eskaintzen digu, nahiz eta, ezin dugun ziurtatu kasu guztietan eguneroko bizitzara transferigarriak izan daitezkeenik. Finean, baloreen ikaskuntza kontzeptu transbertsal bezala ulertu behar dugu, geure hezkuntza helburuak lortze bidean jardueretan sortzen dugun klima aproposa izatea ezinbestekoa izanik; eta horretarako, pertsona, instituzio eta komunikabideen artean elkarbanaturiko konpromezua ezinbestekoa da.

Nire iritziz, jarduera fisikoak geure bizitzako denboraren zati handi bat betetzen du, zeinak gainontzeko pertsonekin elkarbizitzeko tartea eskaintzen digun. Eta harremantzen garen heinean, informazioa elkarbanatzen ari gara, modu honetan, modu inkontziente edo kontzientean ohitura, arau eta balore jakin batzuk barneratu zein ikasten ditugularik.

Aurrez aipatu bezala, joko-jolasak eta kirola bizi garen gizartearen isla dira, hein batean kapitalismoaren eta patriarkatuaren zantzuak erreproduzitzen dituztelarik. Ondorioz, alde batetik adiskidetasuna, gozamina, harremantzea eta parte hartzearen aurrean lehiakortasuna eta indibidualtasuna gailentzeko arriskuarekin egiten dugu topo; eta bestetik, komunikabide zein gizartean ezaugarri maskulinoak baloratzen diren bezala femeninoak bigarren maila batean utziz, joko-jolas zein kirol esparruan ere berdina errepika daiteke, norbere autoestimua eta pertsonalitatea garatzen ari diren gazteek barneratuko dituzten rol eta estereotipoetan eraginez.

Hala ere, ezin muga gintezke jarduera fisikoaren baitan kirol eta joko-jolasen alderdi negatiboak soilik azpimarratzera. Esan beharra dago, egungo gizarteak etengabeko eraldaketan diharduela, eta aldaketa hauen baitan, besteen artean, parekidetasuna, inklusioa eta aniztasuna bezalako kontzeptuak gero eta gertuago ditugula, alor eta esparru ezberdinetan egiten

ari den lanketaren eraginez, pixkanaka uste faltsuak deuseztatu eta pertsonengan kontzientzia jakin bat sortzen doalarik.

Hortaz, ikusiak ikusirik eta egun joko-jolasak gizartearen elkarbizitzara zuzenduriko baloreak transmititzeko tresnatzat hartu ditzakegula ulertzen badugu, esparru honetan lanean diharduten hezitzaileek koherente izan eta heldutasunez jokatu beharko luketela iruditzen zait, kurrikulum ezkutuan arreta jarri eta geure alea jartzeko aukera izango dugun egoerak aurreikusiz, joko-jolasak gizartea eraldatzeko tresna gisa erabili eta guztion elkarbizitzarako balore egokienak transmititzen ahaleginduz. Izan ere, gizartea aldatzen doan bezalaxe geure ikasleagoa ere anitza izanez aldatzen doa, eta honen aurrean, hezitzaileok prest egon beharko genuke geure lana uneoro analizatu eta kuestionatzeko, taldearen beharretara egokituz, eraldaketak eta hobekuntzak era positiboan gauzatzeko.

Gainera, gizarte anitz batean bizi garenez gero, pertsona bakoitzaren ezberdintasunak aprobetxatu beharko genituzke elkar aberasteko, denon arteko berdintasuna bermatuz. Baina, kontuan izan behar dugu berdintasuna ezin dugula uniformetasunarekin nahastu, aitzitik, parekidetasunaren bidez aukera berdintasuna bermatzea helburu izanik, aproposa litzateke banakoaren behar eta gaitasunetara egokitzeko proposamen individualizatuak egitea. Eta horretarako, aldaketak txikitik handira gauzatzea egokiagoa delakoan nago, bide horretan, lehenik eta behin aldaketan geure eguneroko esparru txikietan egiten hasi beharko garelarik, gerora gizartea eraldatu ahal izateko.

Arestian aipaturikoa kontuan izanik, lan honen bitartez ikusi ahal izan dugunez, jarduera neutroak proposatze hutsak ez du bere horretan partaideen arteko generoari dagokion parekidetasuna bermatzen, ez eta, talde mixtoetan aritze hutsak ere; izan ere, jakin baitakigu, jardueraren barne logikaz haratago, kanpo logikak ere eragin zuzena duela bertan, partaideen bizipen, harreman eta emozioek ere jardueraren nondik norakoetan eragin zuzena izanik.

Gauzak horrela, esku hartze honetan ikusi ahal izan dugu hasiera batean planteaturiko hipotesiak baieztatu direla. Partaideei feedbacka ematearen baitan, genero rolen inguruko irakurketa bat gauzatu eta haiekin hausnartzuz,

haien pertzepzioa eta portaera aldatzeko gaitasuna izan dezakeela hezitzaileak, besteak beste, gertutasun, konfiantza eta zintzotasun esparru batean arituz; aldi berean, hausnarketa gauzatu eta norbere jarrerak zein pentsaerak deseraikitzeke espazio eroso zein seguru bat eskainiz.

Kasu honetan, partaideen generoari dagozkion parte hartze indizeak aldatu daitezke emakumezkoen ahalduntzea lortuz, haien parte hartzea bigarren saioan mutilena baino handiagoa izan baita; hala ere, esan beharra daukat, ahalduntze hau ondoren praktika parekide bat lortze bidean ikusten dela balizko; eta horrekin esan nahi dudana zera da, lehen jokoan zehar mutilak baziren boteredun, orain, ez dudala neskek aurrerantzean boteredun izan daitezen bilatzen; aitzitik, baloreen permutazio honen bitartez eta pedagogia erabiliz, etorkizunean honako praktikan bien parte hartze parekidea bermatzea litzateke helburua.

Bestalde, garrantzizko kontua iruditzen zait gazteei kritikoak izateko aukera eskaintzea, askotan iruditzen baitzaigu hezitzaileok dugula jakinduria osoa eta batzuetan ikusi nahi ez dugun arren, egia da gazteek haien artean ere asko ikasten dutela, eta hezitzaileok ere irakaspen asko ditugula haiengandik barneratzeko, jakintza alde bakarrekoa izatetik alde bikoa izatera igarotzea beharrezkoa izanez.

Ondorioz, hezkuntza esparruan txertatu eta transmititu nahi ditugun baloreen artean generoen arteko parekidetasuna eta parte hartze orekatua lantzeko bidean, kirol hegemonikoak erabili beharrean, zeinak gizartearen balore ez-parekideak erreproduzitzen dituzten, memoriarik gabeko jokojolasak erabiltzea proposatzen dut, neska zein mutil modura sozializatzen direnek eskakizun fisiko aldetik ere modu parekatuan parte hartzea ahalbidetuko dutenez gero. Betiere, kontuan izanik jarduera neutroak proposatze hutsak ez duela neska zein mutilen arteko partaidetza orekatua ekarriko, hezitzaileak haur zein gazteekin genero ikuspegiari dagokion lanketa bat burutzen ez badu behintzat, zeinak bertan bereizten diren genero rola identifikatu eta iraultzea ahalbidetuko duen.

## BIBLIOGRAFIA:

Apecechea Berho, B. (2013). Hirurogeita hamargarren hamarkada eta gaur egun: gizartea, familia eta hezkuntza.

Arin Ferré, P. (2019). Jolastokiko errealitatea aztertzen.

Azurmendi, A. eta Laskibar, M. (2016). Kirolaren zehar balioa. *Kirol soziala eta gizarte kiroldua. Kirolak bere baitan dituen erresistentziak berdintasun formala erreal bihurtzerako garaian.*

Bautista Martínez de Icaya, M. (2019). Gorputz hezkuntza, inklusioa ulertzeko eta lantzeko bidea: sentsibilizazio proposamen didaktikoa.

Boyezuk, A. (2015). Tiñamos el deporte: En busca de un cambio, será violeta o no será. In *11 Congreso Argentino de Educación Física y Ciencias 28 de septiembre al 2 de octubre de 2015 Ensenada, Argentina*. Universidad Nacional de La Plata. Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación. Departamento de Educación Física.

Burgos, A. H., Echaniz, P. J., & Olloquiegui, D. E. (2004). Kuadrillategi egitasmoa. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, (53), 103-111.

Díaz, G. C. (2018). Ikuspegi hori Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) txertatzeko bide estrategikoak.

Dugas, E., & During, B. (2006). La inteligencia motriz en la escuela. *Educación física y ciencia*, 8, 81-95.

Egibar Mitxelena, M. (2006). Euskal kirol eskola: euskal jolas, joko eta kirol eskola hezitzailea. *LM Zulaika (koord.) Kirol Hezitzailea, gogoetak eta eharpenak. Jakingarriak*, 15, 133-142.

- Esteban, M. L. (2009). Feministmoa: teoria eta praktika. *Genero kontzeptua. Genero ikuspegia duen esku-hartze baterantz*, 39.
- Etxeberria Petirena, E. (2018). Hezkidetza gorputz heziketan.
- Etxebeste, J. (2004). Gorputz hezkuntza.
- Etxebeste Otegi, J. (2006). Euskal curriculum eta eskolaz kanpoko jokojolasak. *Ikastaria*, 15, 123-132.
- Fuente, A. V., & Jáuregui, P. A. (2003). Guztiontzako gizartea. Ezintasunak dituzten pertsonen Europako urtea dela eta. *Tantak*, (30).
- Gervilla, E. (2000). Valores del cuerpo educando. Antropología del cuerpo y educación. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 38, 183-189.
- Gonzalez, I. (2017). Sarrera: Zer gara? *Ttakun Kultur Elkarte*. 2019ko apirilaren 18an kontsultatua iturri honetatik: <https://ttakun.eus/>
- Lagardera, F., & Lavega, P. (2011). Educación Física, conductas motrices y emociones. *Ethologie & Praxéologie*, 16(1), 23-43.
- Llorente, P. A. (2011). *Generoaren trataera irakasleen formazioan*. Emakunde.
- Martín, R. B. (2013). Contextos de Aprendizaje: formales, no formales e informales. *IKASTORRATZA e-Revista de Didáctica*, 12, 1-14.
- Mendizabal, A. (2000). Kapitalismoaren laugarren globalizazioa. *Burujabetza XXI. mendean*, 57.
- Morales, M. T. V. (2007). 2. gaia: gorputz hezkuntza eta gorputzari buruzko ikuspegia: gaur egungo gorputz hezkuntza.



- Mosquera González, M. J. (2014). ¿ Las mujeres no hacen deporte porque no quieren? ¿ Los hombres practican el deporte que quieren? El género como variable de análisis de la práctica deportiva de las mujeres y de los hombres.
- Oboeuf, A., Collard, L., & Gérard, B. (2008). Le jeu de la "balle assise": Un substitut au questionnaire sociométrique? (The game of balle assise (sitting ball): A substitute for a sociometric survey?). *Les Cahiers Internationaux de Psychologie Sociale*, 77, 87-100.
- Oihartzabal, L. (2002). Kohlbergen proposamen psikopedagogikoaren oinarriak eta deskribapena: Just community. *Kohlberg*, 44.
- Otegi, J. E., Del Barrio, S., Urdangarin, C., Usabiaga, O., & Oiarbide, A. (2014). Ganar, perder o no competir: la construcción temporal de las emociones en los juegos deportivos/Win, lose or not compete: the temporary construction of emotions in sports games. *Educatio Siglo XXI*, 32(1), 33.
- Pagés, J. V. (2007). El deporte y la actividad física como mediadores de modelos corporales: género y sexualidad en el aprendizaje de las masculinidades. *Educación Física y Ciencia*, 9, 81-101.
- Paris, P. (2015). La persistencia del heteropatriarcado. Naturalización, materialización y sedimentación en Bourdieu, Butler y Laclau.
- Parlebas, P. (2008). *Juegos, deporte y sociedades. Léxico de praxeología motriz* (Vol. 36). Editorial Paidotribo.
- Pascual, J. G., & Varona, R. M. S. (1992). Evolución histórica de la educación física en España y en el País Vasco. *Ikastaria: cuadernos de educación*, (5), 49-68.
- Rebollo Catalán, M. Á. (2013). La innovación educativa con perspectiva de género: retos y desafíos para el profesorado. *Profesorado: revista de curriculum y formación del profesorado*, 17 (3), 3-8.

- Ruiz, Y. J. (2015). Sistema kapitalista patriarkalaren aurrean, zenbait hausnarketa ekonomia feministatik. *La década ganada en América Latina*, 49.
- Saraví, J. R. (2007). Praxiología motriz y Educación Física, una mirada crítica. *Aproximaciones epistemológicas y pedagógicas a la educación física. Un campo en construcción*.
- Urdangarin, C., & Etxebeste, J. (2005). Euskal jokoa eta jolasa: transmitiendo una herencia vasca a partir del juego. *Vitoria-Gasteiz: Gobierno Vasco*.
- Wain Martin, A. (2015). Noren alde heztera zoaz? Etika hegemonikoa versus gizartea.